

IÑIGO SANTXO

«Justizia alternatiboaz pentsatzen hasteko garaia da»

Bizkaitarra, Getxokoa. Abokatua da Iñigo Santxo, abokatu euskalduna eta euskaltzalea. Bere buruaren definizioak behin ematen hasita, “aktibista juridikoa nintzela idatzi zuten behin, ABCn edo halako batean”, gogoratu du. Dagoeneko desagertua den Abokatu Euskaldunen Sindikatuko (AES) sortzaileetakoa izan zen, Justizia Euskaraz elkartean dabil orain.

UNAI BREA

Argazkiak: Iñigo Azkona

Zergatik behar da Justizia Euskaraz izeneko elkartea, zein da egoera?

Arazoa oso argi dago: abokatu euskaldunok zailtasun nabarmenak ditugu geure lana ondo egin ahal izateko. Espainiar Konstituzioak, esaterako, babes judizial eraginkorraz berba egiten du. Baina hori ez da betetzen Euskal Herrian, epaileak euskaldunak ez direlako. Euskal Herrian, nik uste, justizia administrazioak bi alderdi ditu: batetik, herritarren aurkako eta herritarren arteko auziak konpontzea, baina bestetik, badauka funtzio errepresibo edo kolonizatzailea, nolabait esateko. Askotan, epaileek euskara elementua erabiltzen dute herritarren aurka egiteko. Gaur egun, Euskal Herrian dauden epaileen %90 oso ideologizatuta dago. Oso barneratuta dute euskararen aurka jo beharra. Euskara tartean sartzeak baldintzatu egin dezake, eta baldintzatu izan du, epailetaren emaitza.

Epaileak dira arazo bakarra? Justizia administrazioak atal asko ditu.

Nik, euskaltzalea naizen heinean, esan dezaket justizia administrazio osoa euskaraz nahi dudala. Leihatilara joaten naizenean, hango langileak euskaraz eman diezadala zitzazioa. Baina hori osagarria dela esan liteke. Arazoaren muina epailea da. Eta hala



da berak epaituko zaituelako, eta ez zaituelako modu zuzenean ulertzen. Nire bezeroak eskubidea dauka abokatu edukitzeko, eta ez itzultzailea abokatuaren orde. Espainiako legediak aurreikusi egiten du fiskalak eta abokatuak arma berdinak izan behar dituztela. Biak maila berean egon behar dira, biak beltzez jantzita, eta abar. Baina nik hobeto egiten dut euskaraz gaztelaniaz baino, eta fiskalak eta epaileak esaten badute beraiek ez dakitela euskaraz, uko egin behar diot defentsarako dudak tresnarik onenari, nire hizkuntzari. Eta abiapuntua gaiztoa izango da, hanka bat lotuta edukiko dudalako.

Jarrera politikoak defendatzea leporatu izan dizuete.

Ez, bada. Guk jarrera juridikoak defendatzen ditugu. Euskal Herrian hain da logikoa, hain da oinarritzkoa, epaileak euskaraz jakin behar duela esatea! Antolatu dezatela nahi duten moduan, baina akusatuak eskubidea dauka, euskara hizkuntza ofiziala bada, epaileak zuzenean uler diezaien. Bestalde, batzuek diote itzultzaileak perituak direla. Beraz, espezialistak. Baina hizkuntza ofizialetako itzultzaileen figura ez dago inon aurreikusita. Botere Judizialaren Lege Organikoak dio itzultzailea hizkuntza ezagutzen duen edonor izan daiteke-

la. Baina itzultzaileak abokatuaren tokia hartuko du. Itzultzailea, munduko onena izanda ere, aldatu egiten du, sortu... Harreman prozesala herrenka abiatzen da. Gure planteamendua oinarritzko logika juridikozkoa da. Harreman prozesala zuzen osatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da epailea euskalduna izatea.

Hamaika urte AES sortu zenetik. Lehen bezala gaude, hobeto?

Agian okerrago. Epaia eman dira jendea euskara erabiltze hutsagatik zigortuz. Gaur egun beldurra dago euskaraz joateko epailearengana. Horren aurrean, noren babes dauka herritarrak? Paradoxikoa da, Justizia Sailak ere ez dio babes eraginkorra ematen herritarrari.

Gasteizko Justizia Sailaz ari zara?

Bai. Egiten duen gauza bakarra kristoren dirutza gastatzea da kristoren eraikinetan, funtzionarioen soldata ordaindu, eta administrazioa ondasunez hornitu. Uste dugu dagoeneko "hau ez dugu onartzen" esan beharko litzatekeela, eta "datorren urtean justizia administrazioarako aurrekontua kupotik hartuko dugu, eta magistratuek itxita edukiko dituzte euren bulegoetako atak". Halako jarrera sendoa. Ezin daiteke onartu honelako urrapen bakar bat ere. Hain da argia! Baina askotan zail egiten zaigu gertatzen dena herritarrei helaraztea. Zaila da akusatuaren ezintasuna adieraztea, itzultzaileak ez duela esan berak esandako gauza bera...

Askotan gertatzen da hori? Hasteko, abokatu euskaldun asko dago?

Gero eta gehiago. Baina beldurra dago. Kontuan hartu behar da herritar gehienek ez dutela justizia administrazioarekiko inolako harremanik beren bizitza osoan. Eta batzuek bizitzan behin. Horiek abokatuarengana etortzen dira beren auzia ezin dezaketenean beren kabuz konpon-



"Harreman prozesala zuzen gauzatzeko ezinbestekoa da epailea euskalduna izatea".

du. Eta beraientzat hori da munduko kasu bakarra. Pentsa, bizitzan behin, beldurrez zaude, eta askotan dirua ere bada tartean. Orduan, galdera: euskaraz egingo dugu? Eta epailearen aurrean euskaraz agertzeko prest dauden herritarrak oso gutxi dira. Gaur egun euskaldun militanteek, kontzientziadunek, baino ez dute egiten.

Epaile guztiek jakin behar lukete euskaraz zure ustez, edo batzuek baino ez?

Eskubidea bermatzea da kontua. Abokatuen Elkargoak, esaterako, askoz xumeagoa izanik, bermatu egiten du urteko 365 egunetan edozein atxilotutako abokatu euskalduna edukiko duela. Justizia administrazioak beste hainbeste egin behar luke: demanda, salaketa, edo prozeduraren edozein atal euskaraz sartzen den unetik, bermatu epailea euskalduna izango dela. Hori da gutxienezkoa.

Baina EAEko Justizia Sailak ez ditu lotuegi eskuak? Epaileak, azken batean, estatuaren eskumena dira.

Jaurlaritzako Justizia Sailean dagoen alderdiari, benetan abertzalea bada,

esfortzu handiagoa eskatu beharko zaio, hau ezin dela onartu esan behar dute. Beraiek bilatu behar dute eredu hau amaitu dadin. Justizia administrazioa Madriletik erabilia bada -Ibarretxe kasua, 18/98 -, bada garaia justizia alternatiboaz pentsatzen hasteko.

Hizkuntzaz baino zerbait gehiagoz ari zara orain...

Bai, sistema judizial propioaz. Esther Larrañagak, justizia sailburuordea zela, esan zuen Ibarretxe planarekin Espainiako Entzutegi Nazionalak ez duela eskumenik izango gehiago gure gainean. Tira, iritziak ematea ondo dago, gezur esatea ez. Jaurlaritzak egin duen planteamendurik ausartena, Ibarretxe planak, aurreikusten duen gauza bakarra epaile-gobernu funtzioetarako organo deszentralizatua da. Euskadiko Botere Judizialaren Kontseilua, edo deitu nahi duzun moduan. Baina harago joan behar da, eta sistema bat sortzen hasi. Ideiak badaude, eta batzuk bideragarriak izan daitezke. Arbitrajeak, esaterako, aukerak eskaintzen ditu, aukerak ustiatzea da kontua. ■

Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

gure!
artean!
euskaraz



BFA
DFB